

## **Berlin 2003**

### **“Europako Goi Mailako Hezkuntza”**

Goi-mailako hezkuntzaren arduradun diren ministroek 2003ko irailaren 19an Berlinen egindako konferentziaren komunikatua.

#### **Sarrera**

1999ko ekainean, “Sorbonne” adierazpena egin eta urtebete geroago, goi-mailako hezkuntzaren arduradun ziren zenbait ministrok, Europako 29 herrialdeetakoek, Boloniako Adierazpena sinatu zuten. 2010. urterako Europako Goi Mailako Hezkuntzaren eremu koherente bat garatzeko helburu komun garrantzitsuak adostu zituzten. Ondoren egin zen lehen konferentzian, Pragan, 2001eko maiatzaren 19an, ministroek helburuak gehitu zituzten eta 2010. urterako Europako Goi Mailako Hezkuntzaren eremua ezartzeko konpromisoa berretsi zuten. 2003ko irailaren 19an, goi-mailako hezkuntzaren arduradun ziren 33 herrialdeetako ministroak Berlinen bildu ziren, egindako aurrerapena aztertzeko asmoz eta hurrengo urteetarako lehentasunak eta helburu berriak ezartzeko, Europako Goi Mailako Hezkuntzaren eremua bizkorrago gauza zedin. Gogoeta, printzipio eta lehentasun hauek adostu zituzten.

Ministroek Boloniako prozesuaren garrantzi soziala berretsi zuten. Lehiakortasuna areagotzeko beharra orekatu egin behar da, Europako Goi Mailako Hezkuntzaren eremuko ezaugarri sozialak hobetzeko helburuarekin. Hain zuzen, gizarte-kohesioa indartu eta gizarte- eta genero-desparekotasunak murriztu nahi dira, bai herrialde bakoitzean bai Europa osoan. Testuinguru horretan, ministroek berretsi zuten goi-mailako hezkuntza ondasun eta erantzukizun publikotzat hartzen dutela. Esan zuten, balio akademikoek gailendu behar dute nazioarteko lankidetzak akademikoan eta trukeetan.

Ministroek Europako bi udalen ondorioak aintzat hartu zituzten, hain zuzen, Lisboako Udalarenak (2000) eta Bartzelonako Udalarenak (2002). Haien helburu nagusia zen Europa “ezagutzan oinarritutako munduko ekonomia lehiakorrena eta dinamikoena, ekonomia-hazkundera lan gehiago eta hobeekin eta gizarte-kohesio hobearekin eusteko gai dena, bihurtzea”. Halaber, ondoren ekintzak egiten jarraitzeko eta Boloniako prozesuaren testuinguruan hurbileko lankidetzak sortzeko asmoa zeukaten.

Ministroek gogoan hartu zuten jarraipen-taldeak Boloniako prozesua garatzean, Praga eta Berlin artean, aurrerapenari buruz egindako txostena. Era berean, Europako Unibertsitateen Elkarteak (EUA) prestatutako Joerei buruzko III. Txostena hartu zuten gogoan. Orobat, Praga eta Berlin arteko lan-programaren barruan zenbait kidek, goi-mailako hezkuntzako instituziok, erakundek eta ikasleki antolatutako mintegien emaitzak aztertu zituzten. Ministroek txosten nazionalen buruzko ohar gehigarriak hartu zituzten; bertan, agerian jarri zen Boloniako

prozesuko printzipioak aplikatzean egiten ari zen aurrerapen nabarmena. Azkenik, Europako Batzordearen eta Europako Kontseiluaren mezuak gogoan hartu zituzten eta prozesua ezartzeko haien babesa aitortu zuten.

Ministroek erabaki zuten ahalegina egiteko konpromisoa hartu behar zutela nork bere herrialdean goi-mailako hezkuntzaren eta ikerketa-sistemen arteko batasuna ziurtatzeko. Goraka ari den Europako Goi Mailako Hezkuntzaren eremuak onura aterako die Europako Ikerketaren eremutik datozen sinergieiei eta, beraz, ezagutzaren Europaren oinarria indartu egingo du.

Hona hemen helburua: Europako kultura-aherastasuna eta hizkuntza-aniztasuna, askotariko tradizioen ondarean oinarritua, gordetzea eta haren berritzeko gaitasuna sustatzea, baita gizarte- eta ekonomia-garapena ere, goi-mailako hezkuntzako Europako instituzioen arteko lankidetzaren areagotuz.

Goi-mailako eremua garatzean, ministroek aitortu zuten goi-mailako hezkuntzako instituzioek eta ikasleen erakundeek funtsezko zeregina dutela. Gogoan hartu zituzten Europako Unibertsitateen Elkarteak (EUA) goi-mailako hezkuntzako instituzioek Grazen antolatu zuten konbentzioan emandako mezua, Goi Mailako Hezkuntzako Institutuzioen Europako Elkarteak (EURASHE) egindako ekarpena eta ESIBek (Europako Ikasleen Batasun Nazionala) egindako komunikazioak.

Ministroek eskerrak eman zituzten munduko beste eskualde batzuek Europako Goi Mailako Hezkuntzaren eremuaren garapenari dagokionez erakutsi zuten interesagatik eta, bereziki, eskertu zuten artean Boloniako prozesuan parte hartzen ari ez ziren Europako herrialdeetako ordezkariak bertan egotea, baita Europar Batasuneko, Latinoamerikako eta Karibeko Jarraipen Batzordekoak (EULAC) eta Goi Mailako Hezkuntzarako Espazio Erkidekoak ere, gonbidatu gisa joan baitziren konferentzia horretara.

### **Aurrerapena**

Ministroek eskerrak eman zituzten Pragan egindako Goi Mailako Hezkuntzari buruzko Gailurraz geroztik sortu diren ekimenengatik. Haien xedea zen bateragarritasuneranzko mugimendua egotea, goi-mailako hezkuntzako sistema gardenagoak eratzeko eta Europako goi-mailako hezkuntzaren kalitatea nabarmentzeko, maila nazional eta instituzionalean. Ministroek tartean dauden guztien (goi-mailako hezkuntzako instituzioen, ikasleen eta bestelakoen) konpromisoa eta lankidetzaren balioetsi zuten.

Ministroek azpimarratu zuten Boloniako prozesuko elementu guztiak, Europako Goi Mailako Hezkuntzaren eremua ezarri nahi dutenak, garrantzitsuak direla eta adierazi zuten instituzioen, herrialdeen eta Europaren ahaleginak areagotu behar direla. Hala ere, prozesuari garrantzia emateko, beraiek hartu zuten konpromisoa hurrengo 2 urteetarako lehentasunak ezartzeko. Sistema eraginkorrek sustatzeko beren ahaleginak indartuko dituzte, 2 ziklotan oinarritutako sistema baten erabilera aurrera egiteko eta gradu-sistemaren eta ikasketa-aldien onarpena hobetzeko asmoz.

## **Kalitatearen bermea**

Goi-mailako hezkuntzaren kalitatea da Europako Goi Mailako Hezkuntzaren eremuaren ezarpenaren bihotza. Ministroek instituzioetan, herrialdeetan eta Europan kalitatea garatzen laguntzeko konpromisoa hartu zuten. Azpimarratu zuten kalitatea bermatzea xede duten metodologiak eta irizpide partekatuak garatu behar direla.

Era berean, adierazi zuten ezen, autonomia instituzionalen printzipioarekin bat etortzeaz gain, goi-mailako hezkuntzan kalitatea bermatzeko lehen erantzukizuna instituzio bakoitzari dagokiola berez, eta horrek sistema akademikoaren erantzukizunerako oinarria ematen duela, kalitate-esparru nazionalen.

Beraz, adostu zuten 2005erako kalitatea bermatzeko sistema nazionalak honako hauek hartu behar zituztela barne:

Nahasitako organismo eta instituzioen erantzukizunen definizioa Programa edo instituzioen ebaluazioa, barne-aholkularitza, kanpo-berrikuspenak, ikasleen partaidetza eta emaitzen argitalpena barne Egiartzatzeko sistema, ziurtatzeko sistema edo antzeko prozedurak Nazioarteko partaidetza, lankidetzeta eta *networkinga*.

Europako mailan, ENQAK, EUArekin, EURASHErekin eta ESIBekin elkarlanean, kalitatea bermatzeko prozedurak eta gidak garatu eta adostuko ditu. Halaber, zenbait bide arakatuko dituzte ziurtatzeko badagoela kalitatearen berme hori berrikusteko eta agentziak edo organismoak egiaztatzeko sistema egoki bat, baita ministroen hurrengo jarraipen-bilerari, 2005ekoari, buruzko txostenak egiteko ere.

### **Karreraren egitura: bi ziklo nagusitan oinarritutako sistema onartzea**

Bi zikloko sistema ezartzeko asmoz Bolonian egindako adierazpenaren ondoren, ministroek nolabaiteko gogobetetasunez nabaritu zuten goi-mailako hezkuntzaren Europako paisaia berregituratzen ari zela. Ministroek konpromisoa hartu zuten 2005ean bi zikloko sistema ezartzen hasteko.

Ministroek azpimarratu zuten garrantzitsua dela egindako aurrerapenak finkatzea eta kalifikazio berrien ulermena eta onarpena hobetzea, instituzioen arteko eta instituzioen eta enplegatuen arteko elkarrizketa indartzeko.

Ministroek beren goi-mailako hezkuntzako sistemetarako kalifikazio konparagarri eta bateragarrien esparru bat sortzeko erronka egin zieten estatu kideei. Esparru horrek egindako lana, maila, ikaskuntza, gaitasunak eta profila hartu beharko lituzke aintzat kalifikazioak deskribatzeko. Era berean, Europako Goi Mailako Hezkuntzaren eremurako kalifikazioen esparru bat eratu behar dute.

Esparru horien barruan, karrerak helburu desberdinak eduki beharko lituzkete definituta. Lehen eta bigarren zikloko lizentziek orientazio desberdinak eta askotariko profilak eduki beharko lituzkete profil akademikoaren aniztasunera eta

lan-merkatuaren beharretara egokitzeko. Lehen mailako tituluek bigarren zikloko programetarako sarbidea eman beharko lukete, Lisboako Konbentzioan esandakoaren ildoan. Bigarren mailako tituluek, aldiz, doktorego-ikasketetarako sarbidea eman beharko lukete.

Ministroek jarraipen-taldeari eskatu zioten ikertzeko ea iraupen laburreko goi-mailako hezkuntzak lehen zikloko kalifikazioen esparruari lotuta egon behar duen Europako Goi Mailako Hezkuntzaren eremuan.

Goi-mailako hezkuntza denentzat, bakoitzaren ahalmenaren arabera, irisgarri egiteko konpromisoa adierazi zuten ministroek.

### **Mugikortasunaren sustapena**

Ikasleen eta langile akademiko eta administrarien mugikortasuna da Europako Goi Mailako Hezkuntzaren eremua ezartzeko oinarria. Ministroek azpimarratu zuen garrantzitsua dela bai arrazoi akademiko, kultural, politiko eta sozialengatik bai ekonomiari lotutako arrazoiak direla eta. Ministroek, nolabaiteko gogobetetasunez, ikusi zuten haien azken bileraz geroztik mugikortasun-figurak gehitu egin direla Europar Batasuneko programen funtsezko laguntzari esker. Halaber, ikasleen mugikortasuna areagotzeko eta haren kalitatea hobetzeko behar ziren urratsak egitea erabaki zuten.

Berretsi zuten mugikortasunarekin zerikusia duten oztopo guztiak deuseztatzeko behar diren ahalegin guztiak egiteko asmoa dutela, Europako Goi Mailako Hezkuntzaren eremuaren barruan. Ikasleen mugikortasuna sustatzeko asmoz, ministroek mailegu eta beketarako sarbidea errazteko behar diren urratsak egingo dituzte.

### **Kreditu-sistema baten ezarpena.**

Ministroek nabarmendu zuten Kreditu Transferentziarako Europako Sistemak (ECTS) ikasleen mugikortasuna errazteko zeregin garrantzitsua daukala eta eragina duela nazioarteko curriculum baten garapenean. Konturatu ziren ECTSa, pixkanaka, kreditu-sistema nazionalerako oinarria bihurtzen ari dela. Era berean, aurrerapen gehiago egitera animatu zuten, ECTSa transferentzia-sistema ez ezik metaketa-sistema ere bihur dadin, goraka ari den Europako Goi Mailako Hezkuntzaren eremuaren barruan modu koherentean aplikatzeko.

### **Karreraren aitortzea**

Ministroek azpimarratu zuten Lisboako aitortzeko konbentzioa garrantzitsua dela eta Boloniako prozesuan parte hartzen duten herrialde guztiek berretsi beharko luketela. Hartara, deia egin zieten ENICi eta NARICi agintari nazional eskudunekin batera konbentzio horretan adostutako baldintzak ezartzen jarraitzeko.

Helburu hau ezarri zuten: 2005etik aurrera karrera amaitzen duen ikasle bakoitzak diplomaren gehigarria automatikoki eta doan jasotzea. Diploma hori Europako hizkuntza ugarran banatu beharko litzateke.

Instituzioek eta enplegatuek diplomaren gehigarria inolako arazorik gabe ematea nahi dute, goi-mailako hezkuntzako sistemen gardentasunari eta malgutasunari onura ateratzeko, horrela lan-topaketa sustatu eta aitorten akademikoa erraztuko baita, ikasketetan aurrera egin nahi izanez gero.

### **Goi-mailako hezkuntzako instituzioak eta ikasleak**

Ministroek pozik onartu zuten Boloniako prozesuko ikasleen eta goi-mailako hezkuntzako instituzioen konpromisoa eta aitortu zuten prozesuan nahasita dauden guztien partaidetzak epe luzeko arrakasta ziurtatuko duela.

Kontuan izanik instituzio indartsuek garapen sozioekonomikoari egiten dioten ekarpena, ministroek onartu zuten instituzioei boterea eman behar zaiela beren administrazioan eta barne-antolaketa erabakiak hartu ahal izan ditzaten. Ministroek instituzioei eskatu zieten erreformak instituzioen prozesuetan guztiz integratzen direla ziurtatzeko.

Ministroek Boloniako prozesuko ikasleen erakundearen partaidetza konstruktiboa balioetsi zuten eta azpimarratu zuten ikasleak etengabe barne hartu behar direla aurrerapenak egiten joateko.

Ikasleak goi-mailako hezkuntza gobernatzeko moduaren parte dira. Ministroek adierazi zuten ikasleen partaidetza ziurtatzeko legezko neurri nazionalak guztiz txertatuta daudela Europako Goi Mailako Hezkuntzaren eremuaren garapenean. Era berean, ministroek deia egin zieten instituzioei eta ikasleen erakundeei, ikasleak egungo gobernu-moduan areago nahasteko bideak identifika ditzaten. Ministroek nabarmendu zuten ikasleentzako ikasketa-baldintza eta bizi-baldintza egokiak behar direla, beren ikasketak ondo eta denbora-tarte egokian burutu ahal izan ditzaten, bizi duten egoera ekonomikoa oztupo izan gabe. Era berean, azpimarratu zuten ikasleen egoera sozioekonomikoari buruzko datu gehiago eduki behar direla.

### **Europako goi mailako hezkuntzaren alderdiaren sustapena**

Ministroek, Pragan egin zituzten deien bitartez, egiaztatu zuten Europako edukia, orientazioa edo antolaketa duten modulu gehigarriak, ikastaroak eta curriculumak garatzen ari direla.

Ikusi zutenenez, goi-mailako instituzioek Europako zenbait herrialdetan ekimenak abian jarri dituzte beren baliabide akademikoak eta tradizio kulturalak biltzeko, hain zuzen ikasketa-programa integratuen garapena sustatzeko eta lehen, bigarren eta hirugarren mailan tituluak bateratzeko helburuarekin.

Gainera, baieztatu zuten atzerrian antzeko ikasketa-programetan funtsezko ikasketa-aldi bat ziurtatu behar dela, hizkuntza-aniztasuna ezagutzeko eta hizkuntzak ikasteko, horrela ikasleek beren potentzial osoa erdietsi ahalko baitute, Europako nortasuna, herritartasuna eta enplegarritasuna lortzeko.

Ministroek adostu zuten maila nazionalen titulu horiek ezartzeko eta aitortzeko legezko oztopoak kenaraztea eta erantsitako tituluen garapenari eta horietarako curriculum-kalitatearen berme egokiari aktiboki eustea.

### **Europako Goi Mailako Hezkuntzaren eremuaren erakargarritasuna sustatzea**

Ministroek adostu zuten Europako goi-mailako hezkuntzaren erakargarritasuna eta irekitasuna indartu beharko lirakekeela. Baieztatu zuten hirugarren munduko ikasleentzako beka-programak garatzeko prest daudela.

Ministroek adierazi zuten nazioen arteko goi-mailako hezkuntzako trukeek kalitate eta balio akademikoetan oinarrituta egon beharko luketela, eta xede hori lortzarren foro egokian lan egiteko konpromisoa hartu zuten, bazkide sozial eta ekonomikoak foro horietan barne hartuz.

Munduko beste alde batzuetako eskualdeekiko lankidetzak sustatu zuten, Boloniako mintegi eta hitzaldiak eskualde horietako ordezkariarentzat irekiz.

### **Bizitza osoan ikasten**

Ministroek azpimarratu zuten goi-mailako hezkuntzak ekarpen garrantzitsua egiten duela bizitza osorako ikaskuntza gauza dadin. Behar diren urratsak egiten ari dira beren politika nazionalak helburu horrekin bat etorrazteko eta goi-mailako hezkuntzako instituzioak bizitza osorako ikaskuntzarako aukerak lortzera bultzatzeko. Nabarmendu zuten ekintza horiek goi-mailako hezkuntzaren jardueraren zati integrala izan behar dutela.

Horrez gain, ministroek kalifikazio-esparruei buruzko lan horiek eskatu zituzten Europako Goi Mailako Hezkuntzaren eremurako, ikasketa-bide malgu, aukera eta teknika guztiak biltzeko eta ECTS kredituak egokiro erabiltzeko.

Azpimarratu zuten herritar guztientzako aukerak hobetu behar direla, haien asmoekin eta trebetasunekin bat etorriz, goi-mailako hezkuntzaren barruan bizitza osorako ikaskuntza-bideei jarraitzeko.

### **Ekintza gehigarriak**

#### **Europako Goi Mailako Hezkuntzaren eremua eta Europako Ikerketaren eremua: ezagutzan oinarritutako gizartearen bi euskarri.**

Ezagutzaren European EHEAren eta ERAren arteko lotura hurbilagoak sustatu behar direla eta ikerketa Europa osoan goi-mailako hezkuntzaren zati integral gisa garrantzitsua dela jakinda, ministroek beharrezkotzat jotzen dute goi-mailako hezkuntzaren bi ziklo nagusietan orain jartzen ari den arretaz haraindi joateko eta

doktorego-maila Boloniako prozesuan hirugarren ziklo gisa txertatzeko. Nabarmendu zuten ikerketa, prestakuntza-prozesua eta diziplinartekotasunaren sustapena garrantzitsuak direla goi-mailako hezkuntzaren kalitateari eusteko, hobetzeko eta goi-mailako hezkuntzaren lehiakortasuna oro har erdiesteko. Ministroek doktorego eta doktorego ondoko mailetan mugikortasuna areagotzeko eskatu zuten eta tartean dauden instituzioak animatu zituzten beren eragiketarako doktorego-ikasketetan eta ikertzaile gazteentzako prestakuntzan areagotzera.

Ministroek behar den ahalegina egingo dute goi-mailako hezkuntzako instituzioak bazkide erakargarriagoak eta eraginkorragoak bihurtzeko. Gainera, ministroek goi-mailako hezkuntzako instituzioei eskatu zieten ikerketa teknologiko eta sozialean eta eboluzio kulturean dituzten zeregina eta garrantzia areagotzeko eta gizartearen beharrekin zerikusia duen guztian arreta handiagoa jartzeko.

Ministroen aburuz, oztopo horiek xedeok betetzea galaraz dezakete, eta goi-mailako hezkuntzako instituzioek ezin dituzte banaka gainditu. Aitzitik, babes indartsua behar da, baita finantzaketa ere, eta gobernu nazionalak eta Europako organismoek erabaki egokiak hartu behar dituzte.

Azkenik, ministroek ezarri zuten doktorego-mailako sareak sortu beharko liratekeela bikaintasunaren garapena pizteko eta Europako Goi Mailako Hezkuntzaren eremuko bereizgarrietako bat bihurtzeko.

## **Inbentarioa**

2010erako jomugun multzoari begira, Boloniako prozesuan lortutako aurrerapenaren inbentarioa egiteko neurriak ezartzea espero da. Inbentarioaren lehen zirriborroak prozesua noraino aurreratu den jakiteko informazio fidagarria emango luke eta neurri zuzentzaile aproposak hartzeko aukera eskainiko luke, egokia izanez gero.

Ministroek jarraipen-taldeari eskatu zioten 2005erako inbentario-prozesua egin dezatela eta hurrengo bi urteetarako tarteko lehentasunen aurrerapenari eta ezarketari buruzko txosten zehatzak presta ditzatela, hauei buruz hain zuzen ere:

### *Quality assurancea*

Bi zikloko sistema

Tituluen eta ikasketa-aldien aitorpena

Horrez gain, herrialde parte-hartzaileak prest egongo dira Boloniako prozesuak goi-mailako hezkuntzari dagokionez dituen helburuekin zerikusia duen guztia ikertzeko behar den informazioa eskuratzea ahalbidetzeko. Ikerketa horretarako, datu-bankuetarako sarbidea emango da.

## **Jarraipena denboran**

### **Kide berriak**

Ministroen ustez, Pragako komunikatuko klausula bat, kideentzako eskaerei buruzkoa, egokitu behar da, honela hain zuzen:

Europako kultura-konbentzioan parte hartzen duten herrialdeak goi-mailako hezkuntzako Europako eremuko kideek hautatu beharko lituzkete. Gainera, goi-mailako hezkuntzako beraien sistemetan Boloniako prozesuko helburuak betetzeko asmo oneko konpromisoa adierazi beharko lukete. Haien eskaerek adierazpenaren printzipioak eta helburuak nola ezarriko dituzten azaltzen duen informazioa jaso beharko lukete.

Ministroek honako hauek kide izateko egindako eskaerak onartzea erabaki zuten: Albania, Andorra, Bosnia-Herzegovina, Egoitza Santua, Errusia, Serbia eta Montenegro eta Mazedoniako Antzinako Errepublika Jugoslaviarra. Halaber, estatu horiei kide berri gisa ongi etorria egin zieten. Horrela, prozesua Europako 40 herrialdetara hedatu zen.

Ministroek aitortu zuten Boloniako prozesuko kideek aldaketa eta erreforma nabarmenak ekarriko dizkietela herrialde sinatzaile guztiei. Herrialde sinatzaile berriak aldaketa eta erreforma horien barruan mantentzea erabaki zuten. Horretarako, Boloniako prozesuak barne hartzen dituen eztabaidetan eta laguntzetan sartuko dituzte.

### **Jarraipen-egitura**

Ministroek jarraipen-taldearen esku jarri zituzten komunikatuan jasotako eskakizun guztien ezarketa, Boloniako prozesuaren zuzendaritza osoa eta ministroen hurrengo topaketaren prestaketa. Topaketa horretan, Boloniako prozesuko kide guztiek eta Europako Batzordearen ordezkariak parte hartu beharko lukete, eta EUAk, EURASHEk, ESIBek eta UNESCO/CEPEsek, berriz, organo aholku-emaileak izan. Talde horrek gutxienez urtean bi aldiz bildu beharko luke. Europako lehendakariak izan beharko luke haren lehendakaria, eta ministroen hurrengo konferentzia hartuko duen herrialdeak, aldiz, lehendakariordea.

Europako lehendakaria ere buru den kontseilu batek jarraipen-taldearen topaketen arteko lana berrikusi beharko luke. Honako hauek osatuko lukete kontseilua: lehendakariak, ministroen hurrengo konferentzia hartuko duen herrialdeak (lehendakariorde gisa), EBko aurreko eta hurrengo lehendakariak, jarraipen-taldeak urte baterako hautatutako hiru herrialde parte hartzailek, Europako Batzordeak eta, kide aholku-emaile gisa, Europako Kontseiluak, EUAk, EURASHEk eta ESIBek.

Idazkaritza batek egingo du jarraipen-lan guztia; ministroen hurrengo konferentzia hartuko duen herrialdea arduratuko da horretaz.



Berlingo konferentziaren osteko lehen bileran, jarraipen-taldeari eskatuko zaio kontseiluaren erantzukizunak eta idazkaritzaren zereginak zehazteko.

### **2003-2005erako lan-programa**

Ministroek jarraipen-taldeari eskatu zioten Boloniako prozesuak aurrera egiteko jarduerak koordina ditzala, komunikatu honetan aipaturiko gaietan eta ekintzetan azaldu den moduan, eta ministroen hurrengo topaketarako, hots, 2005erako, horren gaineko txostena egin dezala.

### **Hurrengo konferentzia**

Ministroek erabaki zuten hurrengo konferentzia Bergen hirian (Norvegian) egitea, 2005eko maiatzean.